

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Txingorrek etxebizitzetan eta nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenari lotutako beste eraikin batzuetan 2023an eragindako kalteak konpontzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak

BDNS (Identif.): 740855.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 173.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/con-vocatoria/740855>).

AURREKARIAK

Erriberagoitiko Udalak 2022-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onetsi zuen 2022ko apirilaren 7an egindako ohiko osoko bilkuran, eta haren behin betiko onespina ALHAOren 104. zenbakian argitaratu zen, 2022ko irailaren 12an. Deialdiko laguntza Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago arlo honen barruan: 1. Gizarte ekintza: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, laneratzea, gizarteratzea, hirugarren adina (prestakuntza, aisia eta denbora libre, bi-daiak, txangoak, ikasgelak, etab.), pertsonen garraioa, haur eta gazteentzako hezkuntza garraioa, prebentzioa, osasuna, etengabeko prestakuntza, herrialde behartsuentzako elkartasun eta laguntza proiektuen finantzaketa, administrazio batzordeekiko lankidetzak, hondamendi naturalek, suteek eta ezinbesteko kasuek eragindako kalteak, Euskal Fondoa, guraso elkarteak, etab.

Erriberagoitiko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzak arautzen du deialdi hau. Ordenantza horren behin betiko onespina ALHAOren 109. zenbakian argitaratu zen, 2022ko irailaren 23an.

2023ko ekitaldian, Erriberagoitiko Udalak dirulaguntzen deialdia egin zuen 2023an txingorrek etxebizitzetan eta nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari lotutako beste eraikin batzuetan izandako kalteak konpontzeko. Baina 2023ko azaroaren 8an ALHAOren 131. zenbakian argitaratutako deialdia hutsik geratu zen. Deialdi honen helburua da eskaerak aurkezteko epea luzatuta laguntza hori eman ahal izatea.

1. artikulua. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da txingorrek etxebizitzetan eta nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenari lotutako beste eraikin batzuetan, Erriberagoitian, 2023an eragindako kalteak konpontzeko dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, konponketak obraren udal lizentzia behar badu.

Erakunde honek txingorrek eragindako kalteak konpontzen lagundu nahi du, horrek eragin ekonomikoa izan du eta.

2. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauetan ezarritakoaren eta honako araudi honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegia onesten duena.

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

- Erriberagoitiko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza orokorra.

- Aurrekontua gauzatzeko oinarriak.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, deialdi ireki bidez, aurrekontu kreditua agortu arte. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

Ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.

Baliabide publikoak eraginkortasunez esleitu eta erabiltzea.

Dirulaguntza eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak ezagutzen eta onartzen dituela oinarri hauek, Erriberagoitiko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, bai eta honelako dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien arau guztiak ere.

3. artikulua. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Txingorrek etxebizitzetan edo beste eraikin batzuetan eragindako kalteak konpontzeko kostuaren ehuneko 3 (BEZa aparte) lagunduko da diruz, konponketak obra lizentzia behar badu eta hura ordaindu bada. Kaltetutako higiezinak kalte atmosferikoengatik aseguratuta egon behar dute.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, pertsona edo erakunde onuradun bakoitzeko, 3.000,00 euro izango da.

4. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honen kariaz ematen diren dirulaguntzak honako aurrekontu esleipen honen bidez finantzatuko dira:

10.000,00 euro, Erriberagoitiko Udalaren 2023rako aurrekontu orokorreko 1522.480000 aurrekontu aplikazioaren kontura («Txingorrek eragindako kalteengatik eraikinak kontserbatzeko eta birgaitzeko dirulaguntza»).

5. artikulua. Hartzaileak

Udalerrian erroldatutako pertsonak izango dira hartzaileak, baldin eta txingorrek eragindako kalteak konpontzeko obra lizentzia eskatu badute.

6. artikulua. Eskatzaileen betekizunak

Eskatzaileek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

Eskatzailea Erriberagoitiko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunaz. Antzinatasunak eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean egon beharko du beteta. Eskatzaile atzeritarren kasuan, erroldaz gain, Espainiako nazionalitatea izan behar dute edo Espainian legezko bizilekua izan, eskaera aurkezten den egunean.

Etxebizitzan edo konpondu beharreko eraikinean izandako kalte atmosferikoak estaltzen dituen aseguru bat kontratatuta edukitzea gertaera atmosferikoa gertatu zen unean.

Erriberagoitiko Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea deialdi hau behin betiko ebatzi arte. Horretarako, zuzenbide publikoko diru sarreraren ondoriozko edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta geroratuta edo zatikatuta dauden zorrak edo zehapenak badira edo haien betearaztea etenda badago.

7. artikulua. Balioespen irizpideak

Erriberagoitiko Udalak aurreko ekitaldiko urteko per capita errenta hartuko du kontuan eskatzaileei dirulaguntza esleitzeko.

Eskatzaileen lehentasuna honako formula honen goranzko hurrenkeraren arabera zehaztuko da:

Urteko per capita errenta kalkulatzeko, eskatzaileak eta familia unitateko beste edozein kidek aurreko ekitaldian edozein kontzepturengatik lortu dituzten diru sarrera guztiak batuko dira. Diru sarrera horiek familia unitateko kideen kopurua oinarri zatituko dira, eta kide bakoitza kide 1 bezala zenbatuko da, salbu eta adingabeak, zeinetariko bakoitzak 1,5eko pisua izango baitu, eta mendekotasun edo desgaitasun maila aitortua dutenen kasuan, 1,5eko pisua, eta pertsona bakarreko etxekoan unitateen kasuan, 1,5ekoa.

Lehentasun zenbaki bera duten eskaerarik badago, lehenago aurkeztutakoak izango du lehentasuna.

8. artikulua. Emateko prozedura

Norgehiagoka bidez emango dira dirulaguntzak; horretarako, aurkeztutako eskaerak alderatu egingo dira, eta haien arteko lehentasuna zehaztuko da, aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera. Finkatutako ordenaren arabera esleituiko zaizkie dirulaguntzak, eta haien zenbatekoa ezingo da izan deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotako aurrekontu hornidurarena baino handiagoa.

9. artikulua. Eskaerak eta agiriak

Eskaerak I. eranskinetako eredu ofizialean aurkeztu behar dira, eta letra larriz bete behar dira, argi eta erraz irakurtzeko moduan. Eskatzaileak laguntzaren onuraduna izan behar du, adingabeen edo desgaituen kasuan izan ezik; horiei dagokienez, eskaera haien legezko ordezkariak izenpetu beharko dute.

Eskaerak 2024ko irailaren 30a baino lehenago aurkeztu behar dira.

Aurkezteko modua:

Aurrez aurre, udal bulegoetan, jendea hartzeko orduetan (09:00-14:00).

Telematikoki, web orri honen egoitza elektronikoaren bidez: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/entidades.do?pes_cod=-2&ent_id=36&idioma=1.

Deialdiaren inguruko dokumentazio guztia eskuragarri egongo da udalaren bulegoetan, jendearentzako arreta ordutegian, eta web orri honetan: <https://www.erriberagoitia.com>.

Eskaerari erantsi behar zaizkion agiriak:

Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskatzaileek:

Eskatzailearen eta haren familia unitatearen PFEZa.

Mendekotasun edo desgaitasun ziurtagiria, hala badagokio.

Txingorrek eragindako kalteak konpontzearen faktura eta ordainagiria.

Txingorrek kaltetutako higiezinaren aseguru poliza eta haren ordainagiria.

Udalaren obra lizentziaren ordainagiria.

AEMETen egiaztagiri meteorologikoa, eremuan txingor ekaitza egon zela egiaztatzeko.

Dirulaguntza eskatzen duen pertsonak diru sarrera egitea nahi duen banketxea eta kontuaren IBAN zenbakia.

Aurkeztutako eskaerak osatu gabe badaude edo oinarri hauetan eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta artxibatu egingo dela.

Pertsona bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da.

10. artikulua. Publizitatea

Urteko deialdiaren laburpena argitara emango da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS), ALHAOn, Erriberagoitiko Udalaren iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.erriberagoitia.com).

11. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen ondorioz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin.

12. artikulua. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Eskaerak Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaileak aztertuko ditu, eta emakida proposameneko txostena idatziko du. Ebazpen proposamena deialdian ezartzen den bezala helarazi behar zaio pertsona interesdunari, eta hark hamar eguneko epea edukiko du alegazioak aurkezteko. Izapide hori ez da egingo, baldin eta proposamenean kontuan hartzen diren gertaera, alegazio eta froga bakarrak pertsona interesdunak aurkeztutakoak badira. Ebazpen proposamenak ez du sortzen eskatzaileen aldeko inolako eskubiderik. Instrukzio organoak ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren edo dirulaguntzen araudian eskatzen diren txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

Erriberagoitiko Udalaren dirulaguntzen udal ordenantza orokorrean ezarrita dagoenaren arabera egingo da dirulaguntzen emakida. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabete izango da, deialdia argitaratzen denetik kontatuta. Epe horretan eskaerak berariaz ebazten ez badira, ezetsizat joko dira.

13. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, emakida ebazpena eman ondoren.

Laguntzak banku transferentzia bidez ordainduko dira, eskaeraren inprimakian agertzen den kontu korrontean, ebazpenean emandako laguntzaren zenbatekoaz.

14. artikulua. Interpretazioa eta araudi aplikagarria

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden alderdietan, udalak onartutako dirulaguntzen udal ordenantza orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta Dirulaguntzen Lege Orokorrari, hura garatzen duen arautegiari eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

15. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten da ezen deialdi honetan emandako datuak Erriberagoitiko Udalak tratatuko dituela, eskaerak, idazkiak edo komunikazioak aurkezteari buruzko informazio pertsonala kudeatzeko. Datuak gorde egingo dira haiek batu izanaren helbururako beharrezkoa den bitartean, eta lotutako eskubideren batek irauten duen bitartean gordeko dira, artxiboei buruzko legerian ezarritakoaren arabera, eta hirugarrenei laga ahal izango zaizkie soilik legeetan jasoriko kasuetan eta baldintzetan. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko, Erriberagoitiko Udalera jo behar da. Deialdi honetan lehiatzen diren pertsonak baimena ematen diote Erriberagoitiko Udalari aurkeztutako agirietan emandako datuak beste organismo publiko batzuetan egiaztatzeko.

Pobes, 2024ko urtarrilaren 11

Alkatea

JAVIER GALLEGU RODRÍGUEZ